

**AKORDIOA, ERRENTAK GERORATZEKO ETA ERRENTAMENDU-
FIDANTZA EDUKITZEKO****ADIERAZPEN-EGILEEN IDENTIFIKAZIOA****Errentatzaile gisa**

NAN/AIZ/Pasaportea/Beste bat:

Izena:

1. abizena:

2. abizena:

Errentari gisa

NAN/AIZ/Pasaportea/Beste bat:

Izena:

1. abizena:

2. abizena:

Errentapeko finkaren datuak

Errentapeko finkaren helbidea:

Finkan garatutako jarduera:

ERANTZUKIZUNEZ DEKLARATZEN DUTE

1. 15/2020 Errege Lege Dekretua¹ indarrean jarri aurretik (2020ko apirilaren 23a), alderdiek ez dutela borondatez sinatu errenta geroratzeko edo jaisteko akordiorik.
2. Errentariak errentatzaileari eskatu diola, 2020ko apirilaren 23tik maiatzaren 22ra bitartean, errenta aldi baterako eta ohiz kanpo atzeratzeko.
3. Errenta osorik edo partzialki ordaintzeko beste inolako fidantza eta/edo berme gehigarririk ez dutela, edo berme horiek akordio hau formalizatu aurretik aplikatu direla, eta ez direla nahikoak ordaintzeko betebeharra bere gain hartzeko.
4. 15/2020 Errege Lege Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluetan ezarritako baldintza eta betekizun guztiak betetzen dituztela.
 - a. Errentatzaileak adierazten du ez dela edukitzaile handia, eta ez dela etxebizitzarako enpresa edo erakunde publikoa.
 - b. Errentariak adierazten du:
 - ETEa dela eta ez dituela gainditzen Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko Legegintzako Errege Dekretuaren 257.1 artikuluko mugak,

¹ 15/2020 Errege Lege Dekretua, apirilaren 21ekoa, ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarriari buruzkoa. BOEn argitaratua 2020/04/02an.



Autonomoa dela eta alarma-egoera deklaratu zen egunean (2020ko martxoaren 14an) afiliatuta eta altan zegoela,

eta honako egoera honetan dagoela:

bere jarduera bertan behera geratu da.

bere jarduera gutxienez % 75 murriztu da, hilabeteari dagokion hiruhilekoko hileko batez besteko fakturazioarekin alderatuta, aurreko urtearekin alderatuta.

5. Errentariak agiri hauek aurkeztu dizkio errentatzaileari:

Jarduera eten bada: Dagokion Foru Ogasunak emandako ziurtagiria, interesatuak jarduera uzteko deklarazioan oinarrituta.

Jarduera murriztu bada: erantzukizunpeko adierazpena, non, kontabilitateko informazioa eta sarrera eta gastuei buruzko informazioa oinarri hartuta, hileko fakturazioa gutxienez % 75 murriztu dela jasoko den, aurreko urteko hiruhileko bereko hileko fakturazioarekin.

ADOSTU DUTE

Errenten ordainketa aldi baterako eta ezohiko eran atzeratzea eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan gordailututako fidantza edukitzea, **hilabeteetako errentamendu-errenta ordaintzeko balio dezan**, Ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarriei buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren 2.2 artikuluan aurreikusitako neurriari helduz.

Fidantza akordio hau sinatu eta urtebeteko epean gordailutu beharko da berriro, edo kontratua indarrean egoteko geratzen den epean, epea urtebetetik beherakoa bada. Errentatzaileak fidantza Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan gordailutu beharko du, gehienez ere hilabeteko epean, birjartzea erabaki den egunetik zenbatzen hasita.

Eta horrela jasota gera dadin, aldeek akordio hau sinatu dute.

.....(e)n, 2020ko.....aren (e)an.

Errentatzailea	Errentaria